

HAZIZ HAZI HAZTEGI

Hasi eta haziz hazi
hazbete eta hazpegi
Berak gu hazi ahala
haziz joan da Haztegi (bis)

Hasi eta haziz hazi
hazbete eta hazpegi
Berak gu hazi ahala
haziz joan da Haztegi (bis)

Ile-kizkur, beltzaran
eta ile pintxo
Martxi, Chaima ta Maite
oker baina txintxo
Haztegira bidean
zirto eta ditxo
noiz iritsiko dira?
zain dute Argitxo

Begira haurren hitz-jolasari
gustura doaz, Karatxi!
Zirto artean gure barruan
zerbait digute itsatsi
zentzumenekin nola ikasi
han ziguten irakatsi
Geu ginelako Kimu Berrien
Chaima, Maite eta Martxi

Hasi eta haziz hazi
hazbete eta hazpegi
Berak gu hazi ahala
haziz joan da Haztegi (bis)

C: Euskara ta Gizarte!
M: Hamabiak arte?
Mr: Eta gero Tailerra.
C: Ze kontu ederra!
M: Dena dator Txanelan
Mr: Daukat aldagelan
M: Gaur ez daukagu Natur!
C,Mr: Ez? orduan, agur!

C: E! Martxi, Martxa, arin
Mr: Nor? Nekane Arin?
C: Egia da, Nekane!
M: Han dago, Ai enel!
Mr: Gaur dugu Mate, Maite?
M: Ez dut maite Mate
C: Nik nahiago dut Gazte
Mr,M: denok gara gazte

Hasi eta haziz hazi
hazbete eta hazpegi
Berak gu hazi ahala
haziz joan da Haztegi (bis)